



bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAK METROKO 1. LINEAKO URDULIZ-PLENTZIA IBILBIDEKO BIHURGUNE-TARTE BAT HOBETUKO DU

- **557.893 euroko aurrekontua eta hiru hilabeteko epea izango dute egingo diren bi obra nagusiek, hau da, bidearen berritze partzialak eta Plentziako geltokian 2. bideko nasa hobetzeak.**
- **BGPren Kontseilu Nagusia gaur ere bildu da eta BGPren eta Metro Bilbao SAREN aseguru pribatuak kontratatzeko lizitazioa onetsi du. Aseguruengatik 1.950.000 euro ordainduko dira urtean.**

Bilbon, 2016ko urriaren 18an.

Bizkaiko Garraio Partzuergoko (BGP) Kontseilu Nagusiak, gaur goizean Bilboko egoitzan egindako bileran, bidearen plataforma berritzeko lehiaketarako adjudikazioa onetsi du, Metro Bilbao 1. lineako Urduliz-Plentzia ibilbideko tarte batean dagoena. Guztira, 557.893 euroko aurrekontua eta hiru hilabeteko epea izango ditu. Bertan jasotako jarduketak hiru motatakoak dira, baina oinarrian orain egoera txarrean dauden bidearen elementuei erreparatuko zaie. Hala, 1 km inguruko tarte eguneratu ahal izango da.

Zehazki, bi obra nagusi egingo dira: alde batetik, trenbidearen berritze partziala balastoko trenbidearen gainegitura batekin, eta, bestetik, Plentziako geltokian 2. bideko nasa hobetzea. Hobekuntzak katenarian eta trenbidean egingo dira. Horretarako, trenbidea erabilgarri ez dagoela aprobetxatu da, Urdulizko lurperatzearen ondorioz. Lanek 1 km inguruko tarte eguneratzea ahalbidetuko dute, hiru bihurgune dituen Urdulizko tunelaren irteeran. Horren bidez, segurtasuna, erosotasuna eta kalitatea hobetu nahi dira. Izan ere, tarte hori ez da aldatu 1995. urtean metroa martxan jarri zenetik.

GOTen eginkizun berriak

BGPko Kontseilu Nagusiak, gaurko bileran, Metro Bilbao garraio-eskaintza sortzeko tresna eguneratzeko eta hobetzeko adjudikazioa ere onetsi du, 374.016 euroren truke eta hamabi hilabeteko epean egiteko. GOT baliabide informatiko bat da, bertsioak eguneratuak izango dituen zerbitzua planifikatzeko diseinatuta dagoena. Eginkizun berriak izateaz gain, Metro Bilbao zerbitzuaren programazioa aldatzeko malgutasun handiagoa ere izango du, langileen eta trenen arteko lotura hobetzeko helburuarekin, eta, ondorioz, Metro Bilbao zerbitzua hobetuko da.

1.950.000 euro urtean aseguruetan

Eguneko erabaki garrantzitsuenen artean, BGPren eta Metro Bilbao SAREN aseguruak kontratatzeko lizitazioa ateratzea dago. Aseguruak 1.950.000 eurokoak dira urtean. Poliza horiek betetzeko interesa duten enpresak Europako lehiaketa honetara aurkez daitezke, BGPk partzuergorako eta Metro Bilbao SARAko batera onesten duen zenbateko horren arabera.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Oraingoan, arriskuak loteetan banantzeko gaur egun dagoen egitura mantentzea aukeratu da. Arriskuen artean, hauek topa daitezke, besteak beste: BGPren eta Metro Bilbao SAREN ondarea osatzen duten ondasun higiezin eta higigarrien ondare-arriskuak, ondare horiek eragin dezaketen erantzukizun zibileko arriskuak, istripuen ondoriozko arrisku pertsonalak... Guztira, ondare-arriskuei eta erantzukizun zibilekoei lizitazioaren zati handiena dagokie.

Maileguak berriz negoziatzea

BGPko Kontseilu Nagusiak gaurko egunean onartutakoen artean, azkenik nabarmentzekoa da merkataritza-mailegu batzuen interes-tasak jaitsi direla. Horri esker, hemendik eta 2026ra bitartean 5 milioi euro aurreztuko dira. Merkatuan interes-tasak baxu daudenez gero, Kontseilu Nagusiak finantza-entitateekin sinatuta dituen maileguen baldintzak berriz ere beherantz negoziatzea onetsi zuen ekainean, eta, beraz, emaitza hori ekarri du.